

ZAKILIXUT

© Otxarriak



Pello Errota Obabakoa zen, eta bera jakin gabe

■ *Obaba izena jarri zioten udan Bernardo Atxagaren jaioterriko kale bati*



Tanta lodiek zintzilik zirauten armiarna sareetan. Zeruia, beltz eta grisa, jaitzia zegoen Obabaren goi auzoko teilatuetaraino. Eta, berdea eta bustia izateaz gain, bakartia ere bazen paisaia hura: bideetan ez baitzebilin inor, gu besterik: ez baitzen, uraren burrundaraz gain, beste soinurik aditzen. Bakar-dade hartan, elizaren dorre zorrotza zen nagusi. Arbelezkoa, arbelak ilunki distiratzten zuen.

Ilobate, Muino, Pepane, Arbe, Legarra, Zumargain, Etxeberri, Ostatu, Motse... atzean utzi genituen haurtzaroen hainbeste aldiz ikusitako etxe haiek, eta harrizko eskaileretara iritsi ginen. Erretratuan bezala segitzen zuten: zahar eta serio, beren pitzadurekin, zirkuituetan belar gogor eta zakarrak zituztela.

Laguna eta biok korri egin genien magnoliaren azpiraino, eta ez hainbeste osabaren esanak jarraitzearen, baizik eta eguraldiak horretara bultzatzen zuelako-itzala ematen zigun zuhaitzak hitz egiten hasi ginen: magnoliak, eta bai halaber palmondoak Ameriketan egondako jendearen etxe atari guztietan egoten zirela eta hor bakarrik, ez beste inon; eta zein ote zen joera horren arrazola.

Obabako azunerik urrunenak Albania zuen izena, eta ez zeukan ez karreterarik, ez eskolarako etxe berezirik; eta, hala, beste aukerarik ezetan, bertako emeek auzuneko ostatuaren goiko bizitzan ikasten zituzten A B C eta gainerako letra guztiak, eta bai halaber non zeuden Dinamarka eta Pakistan, edota zenbat osatzen zuten berrogeitasei eta hogeitazazpi zenbakiek.

Aspaldi, artean gazte eta berde ginelak, erretratu bat egitera hotsegin ziguten eskola tikian genbiltzan gustioi. Eta hala, kontent, ardaila batean ustekabeko atsedendali hura zela eta, maistrari jarraitu gintzaizkion elizako zimenterioaren arkupe-taraino, maletak airetara botatz, zilipurdika, harrapatzen genituen putzu guztiak zapalduz.

NORK esango zion Pello Errota bertsoari Bernardo Atxagak Obaba izeneko herri bat asmatu eta bere haurtzaroko oroitzapenak han kokatu zituela; nor esango zion Errotari Asteasun Obaba izeneko kale bat izango zela. Bada, bai, udaletxearen eskuin aldean dago Obaba, Pello Errotaren bustotik ez oso urrun.

Obabako bost etxe berriek —zahar bat ere badago— *Obabakoak* liburuaren pasarte bana dute plaka batean. «Zeruia, beltza eta grisa, jaitzia zegoen Obabaren goi auzoko teilatuetaraino. Eta, berdea eta bustia izateaz gain, bakartia ere bazen paisaia hura: bideetan ez baitzebilin inor, gu besterik: ez baitzen, uraren burrundaraz gain, beste soinurik aditzen. Bakar-dade hartan, elizaren dorre zorrotza zen nagusi. Arbelezkoa, arbelak ilunki distiratzten zuen», dio Obaba kaleko etxe bateko plakak. Atxagaren gogoetek ederki deskribatzen dute Asteasuko herria udazkeneko eguerdian. Izan ere, herritarrak lanean, ikastetxean edo bazkaltzen egoten dira; inor gutxi kalean eta soinurik ere ez dago apenas.



Goian, sega dema irudikatzen duen eskultura, Tranpazulo parkean. Behean, Pello Errotaren bustoaren irudia.

Atxagak esan zuen ez zukeela *Obabakoak* liburua idatziko Pello Errotaren alaba Mikaela Elizegiren esanak zekartzan liburu bat irakurri izan ez balu. Gertaera harrigarriak kontatzen zituen Elizegik liburuan, esaterako; Ibarreko etxe batean azeria zegoela. Atxagak azaldu zuen txakurrari azeri esaten zitzaioela garai batean Ibarren. Gauza harrigarriak irakurri zituen Atxagak, eta bere haurtzaroko toki eta gertaera batzuk hartu zituen oinarritzat ipuinak idazteko.

Atxagak Asteasun utzi duen ekarpena ez da Obaba kalean amaitzen, alboko parkean idazlearen ideia batetik ateratako eskultura baitago.

Eskulturak sega dema bat irudikatzen du. Tranpazulo parkean dago eskultura, eta gaia noski azpijokoa da, tranpa. Izan ere, Asteasun apustu ugari egiten ziren garai batean, batez ere sega apustuak, eta tartean tranpak ere bai.

Ainara Mendiola
 ASTEASUN

Obabakoak Asteasuko etxeetan. Bernardo Atxagaren *Obabakoak* liburuaren bost pasarte irakurgai dira Asteasuko Obaba kaleko beste hainbat etxetan. Joan den maiatzean inauguratu zuten kalea Atxagaren jaioterrian.